



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

DEPARTAMENTO DE LENGUA CASTELANA Y LINGÜÍSTICA Y DE LINGÜÍSTICA  
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

# TRASVASES CULTURALES:

Literatura  
Cine  
Traducción

4

Eds.: Raquel Merino  
J. M. Santamaría  
Eterio Pajares



La publicación de este volumen ha sido posible gracias al patrocinio de:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea  
Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Álava  
Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco  
Departamento de Filología Inglesa y Alemana y de Traducción e Interpretación  
Facultad de Filología y Geografía e Historia

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

I.S.B.N.: 84-8373-707-8  
Depósito Legal/Lege Gordailua: BI-327-05

Composición/Konposizioa: RALI, S.A.  
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao

Impresión/Inprimatzea: Itzaropena, S.A.  
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

## Itzulitako literaturaren inguruko azterbideak

**Manu López Gaseni**

EHU/UPV

Literatur itzulpengintzak azken 10-15 urteotan bere urrezko aroa bizi duela esan daitekeen neurri berean, literatura itzuliaren inguruko ikerbide akademikoak hutsaren hurrengo direla esan daiteke. Urte askotan zehar itzultzaileek eta itzulpen lanak berak ere izan duten estatus apalaren eta «bigarren mailakotzat» jo izanaren ondorio gisa har daitekeen egoera da.

Horrek zerikusi zuzena du, bestalde, itzulpengintzako ikasketa arauturik duela oso gutxi arte ez egotearekin. Egia da Martuteneko Eskolaren garaietatik zenbait sistematizazio ahalegin egin direla, esaterako Xabier Menđiguren Bereziarturen lanen bidez edo EIZIE elkarteak sorturiko *Senez* aldizkariaren inguruan eratutako taldearen eskutik ere bai. Baina hortik aurrera ezer gutxi egin da, kontuan hartuta Europako unibertsitateetan duela 20 bat urte hasi zirela itzulpengintza ikergaitzat hartzen.

Ikerlarien alde esan behar da unibertsitate erakundeak ez duela interes handiegirik jarri itzulpenari buruzko ikasketak bultzatu eta garatzeko. Izan ere, itzulpengintza bera diziplinarteko gaia izanik, hizkuntza eta literatura jakin batzuetako filologiaren monolitismo sendoarekin talka egin, eta galtzaille atera da ia beti. Filologiaren eta Literatura Konparatuko estudioen arteko borroka zaharra da, azken batean.

Ez da harritzekoa, hortaz, eta hizpidea lehen pertsonara ekarriz, euskaratutako literaturari buruzko lehen doktore tesia haur eta gazte literatura bezalako bazterreko arlo batean egin izana, duela lau bat urte: *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak* (2000). Normala da diziplina berriek bere bidea egiteko zirrikitu akademikoak bilatu behar izatea eta, nire kasuan, zirrikitu hori «Psikodidaktika» izeneko doktorego programa izan zen, Irakasleen Unibertsitate Eskoletako ikerketak elikatze eta bultzatzeko sortua. Tesiaren gaia haur eta gazte literatura euskaratua izanik, bat zetorren programaren eskakizunekin, konkretuki programan parte hartzen duten sail guztien artean, Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saileko ikerbideekin, eta horixe izan zen itzulitako literaturaren azterketa bat garatzeko bide «zeharkakoa». Bide beretik joan da orain arte zuzendu dudan doktore-tesi bakarra, Alemaniako herri ipuinen euskal bertsioren azterketa bat, Genaro Gomez Zubia

irakasleak burutua: «Grimm anaien *Kinder- und Hausmärchen* euskaraz: itzulpen eta egokitzapenen azterketa» (2003). Espero izatekoa da bide horretan sortutako tradizio txikiaren haritik emaitza gehiago ateratzea, dagoeneko zenbait doktoregai lanean ditugu eta.

Denborarekin ohartzen joan nintzen arlo bereko ikerlariak izan bazirela, bakarrik ez geundela, alegia; esaterako, Ingeles eta Aleman Filologia Sailean, lan isil bezain interesgarriak aurrera eramaten; eta handik oso gutxira abian jarri ziren, azkenean, itzulpengintzako ikasketa arautuak Euskal Herriko Unibertsitateko Filologi Fakultatean (lehenago, jakina denez, itzulpengintza masterra eskaini izan zen urte batzuetan zehar).

Lizentziatura horretako lehen promozioa atera berria da, eta azkenean antolatu beharko da gaiari buruzko hirugarren zikloko programa sendo bat, horretarako borondatea egonez gero, eta europar konbergentziazatik etorriko den doktoregoko arautegi berri-zorrotzaren baimenarekin.

Izan ere, hasieran esan dudan bezala, ia dena dago ikertzeko euskal literatur itzulpengintzaren eremuan. Garai batean beste arlo askotan gertatzen zen bezala, lur birjina da zapaltzen ari garena. Bestelako aukerarik baztertu gabe, muturrerako bide biak aipatuko ditut, beste jarduera askotan ere markatu direnak: bata, gurean egin gabe dagoen guztia beste ikerketa tradizioetatik «kalkatzea», haien eredura lan egiten hastea litzateke. Bestea, bide ustez berriak irekitzea. Izan ere, tradizio sendoek halako *kortse* estuak ezartzen dituzten bezala, kontrako kasuan tradizioz eza askatzaile eta aurreiritzirik gabekoa izan daiteke ikeritzailearentzat (parentesi txiki bat eginda, esan behar dut horixe bera gertatu dela euskal literaturaren eraberritzean bertan ere: atzerriko tradizioak imitatzearen eta bide propioak irekitzearen arteko etengabeko tentsioan mugitu baita).

Aipatutako lehen bidetik, gurea bezalako beste hizkuntza-komunitate diglosikoetan garatu diren ikerketak izan beharko genituzke ispilu: batez ere Herbeheretan, han sortu baitziren itzulpen ikasketen tradizio eta eskola sendoenetakoak (*Translation Studies* eta *Manipulation School*, hurrenez hurren); eta Tel-Aviv-eko Unibertsitatean gauzatu den «kezka judutarra» dei genezakeena: Israelgo estatua sortzearekin batera hartu ziren erabaki linguistikoen inguruko azterketak, hebraiera hautatu baitzuten yiddish-aren kaltetan, eta nola itzulpenen laguntza handiarekin (batez ere aleman eta errusiar literaturetatik) literatura sistema bat sortuz joan ziren malgutasun gutxiko hizkuntza hautatu berriaren gainean.

Bide horietatik aurrera eraman daitezkeen ikergaiak asko dira: euskaratutako literaturak noraino lagundu duen euskal literatura sistema osatzen eta eraberritzen (euskaraz ez ziren generoak, tematika eta mundu ikuskera berriak, baliabide literario berriak); garai bakoitzean zer euskaratu den eta zer ez eta, batez ere, zergatik (itzultzaileen prestakuntza, argitaletxeen hautaketa, irakurleriaren heldutasuna); euskaratu den literaturak molde edo gai berriak ekarri ote dituen gurrera, edota irakurleen moldeetara egokitzen zen hura bakarrik euskaratu den (egokitasuna/onargarritasunaren arteko teinka).

Euskaratu diren obretan, bestalde, nolako estrategiak erabili diren: zailtasun linguistiko edo tematikoak saihestu diren ala ez, jatorrizko hizkuntzetatik itzuli diren ala zubi hizkuntzak erabili diren, lan osoak euskaratu diren ala egokitzenaren bidetik jo den...

Ikerketa horiek, gainera, ikuspegi askoren arabera egin daitezke: hizkuntza jakin batetik egindakoak, garai jakin batean, genero jakin batean, egile jakin baten obren itzulpenak edo itzultzaile jakin batek egindakoak.

Alderantzizko itzulpenen azterketaren bidetik, berriz, gure euskal idazleen lanek nolako bidea egin duten prestigiozko hizkuntzetara itzuliak izateko, nolako itzulpenak egin diren, nolako harrera izan duten obra horiek edo atzerriko itzultzaileek, normalean euskaraz ez dakitenek, gaztelaniazko edo frantsesezko bertsioan oinarritu behar izateak dakartzan ondorioak. Are eta gehiago, irakurleria beste hizkuntzetara zabaltzea lortu duten idazleek gaiak edo idaztancerak behar berrietara doitu ote dituzten ere azter liteke.

Arestian aipatu dudan beste bidea arlo berriak jorratzearena zen. Gauza jakina da ez dagoela ikertzerik aurrekari edo alde aurreko oinarririk gabe, eta aurrekoek egindakoaren gainean ekarpen txikiak egitea dela gure lana; hala ere, zenbait gaik ez dute ikertzaile askoren interesa piztu. Horietako bat, niri bereziki interesatzen zaidana, autoitzulpenarena da, hau da, gizarte elebidunetan bizi eta elebidunak diren idazleek nolako estrategiak erabiltzen dituzten beren lanak hizkuntza batetik bestera aldatzeko, eta nolako aldea dagoen kanpoko itzultzaile batek har ditzakeen erabakiekin konparatuta. Sarri askotan, egileak berak hartzen du bere obrak itzultzeko lana eta, hortaz, beste edozein itzultzailek baino askatasun gehiago har lezake. Kasu batzuetan, aldaketak oso handiak izaten dira periodo sintaktikoen eraketan edo informazio gehigarriak emateko; bestetan, berriz, ia hitzez hitzeko itzulpena izaten da idazleek egindakoa.

Beste batzuk, bazterreko literatur generoen azterketatik eratorriak izan litezke: haur eta gazte literatura bera, polizi eta misteriozko eleberrien itzulpena, best-sellerrenak, eta abar; teoriak dioen legez, kanonaren begietatik urrun egoten diren genero horietan gertatzen baitira itzulpen manipulazio gehienak, irakurleria berriari egokitzeko helburuz eginak gehienak.

Azken batean, gurea bezalako literatura sistema berri eta ahul batek dozenaka gai eskaintzen ditu itzulpen ikerketarako, ikertzaile bakoitzaren interes eta gaitasunen arabera.